



BERNARDO ATXAGA ▶ IDAZLEA ETA EUSKALTZAIN OSOA

«Hizkuntzaren inguruan bizi den herria izatea da Euskal Herriaren ezaugarri bat»

ASTEASU ▶ Iragan larunbatean izendatu zuten euskaltzain oso bere jaioterrian, Juan Mari Lekuonaren domina jasoz

GUTXIENEN HIZKUNTZA ▶ «Metropoliak indarra duen heinean, gure lurraldeak hizkuntzari esker du zentraltasuna», dio ▶ 7

MIKEL BALENTZIAGA ▶ KONTSEILUKO KIDEA

«Funtsezkoa da hizkuntza politika egoki bat izatea»

Tolosako hizkuntza politikaren neurketa aurkeztuko du gaur ▶ 2

ALEGIA ▶

Isabel Azpirozen oleozko lanak ikusgai

Jubilatuaren tabernan apirilaren 16ra arte izango dira ▶ 5

AGENDA 21 ▶

San Lorenzo lehen fasea amaitzear

Diagnostikoaren zirriborroa igiten ari dira ▶ 6



Munduko lurralderik garaiena, mendizaleen ikuspegitik

TOLOSA ▶ Tolosako Ekinbide Etxeak bigarren urtez antolatutako Amalur jardunaldiek Nepal herrialdea hartu dute ardatz. Iragan ostiralean izan zen sarrera ekitaldia, eta gaur hasiko dira Koldo Aldaz Goi Mendiko Nazioarteko Gidariak —irudian— emango duen hitzaldiarekin. *Nepal maite* izenekoa Zerkausian

izango da, 20:00etatik aurrera. Iruñeko mendizaleak 1985. urtean egin zuen lehendabiziko espedizioa Nepalera. «Askotan pentsatu izan dut Nepalekin zor handia dudala», dio. Bihar izango da jardunaldietako bigarren saioa, eta Vicki Sherpa kataluniarra izango da hizlari, leku eta ordu berean. HITZA ▶ 3

MIKEL BALENTZIAGA ▶ KONTSEILUKO KIDEA

«Hizkuntza politika egokia funtsezkoa da euskararen normalizaziorako»

Tolosako hizkuntza politikaren neurketaren aurkezpena egingo du gaur 20:00etan, udaletxeko batzar aretoan, Kontseiluko kideak

IÑIGO TERRADILLOS

Euskararen Gizarte Erakunde-en Kontseiluak Euskal Herriko 66 herritako hizkuntza politika aztertu eta egoeraren balorazio orokorra egin du. Horren arabera, Tolosa laugarren postuan geratu da, aurretik Azpeitia, Lekeitio eta Oñati dituela, eta lortutako emaitza 6'48koa izan da. Hala, Tolosan egin duten hizkuntza politikaren neurketa aurkeztuko du gaur 20:00etan, udaletxeko pleno aretoan, Mikel Balentziaga (Altza, 1961) Kontseiluko kideak. Bertara gonbidatu dituzte herritar guztiak euren iradokizunak, asmoak edota ideiak ere jasotze aldera.

Nola egin duzue neurketa?

Hizkuntza politikaren harira Udalak hartutako erabakiak eta baliabideak aztertu ditugu eta horien ondorioz egoera bera zein den ikusi dugu. Azterketa egiteko hautatzen ditugun galderak funtsezkoak dira gure ustetan udalaren hizkuntza politika baterako. Ardatz diren neurrian, definituko lukete hizkuntza politika egokia den.

Zein motatako galderak dira? 55 galdera egin ditugu 10 arlo desberdinetan. Horietatik, garrantzi gehien hartu dutenak erabakiei dagokienez izan dira: ordenantzarik ba ote den, izan ere, udalen erdiek ez dute, edo euskararen plan orokorra ba ote duten. Euskararako aurrekontua zenbatekoa den galde dugu. Gure ustez %2tik gora beharko luke, eta Tolosaren kasuan, betetzen da hori. Udalak kudeatutako hizkuntza paisaia euskararen presen-



HITZA

tzia bermatzen duen udal erabakirik ba ote den ere aztertu dugu, besteak beste.

Tolosa 6'48 puntu izateak zer esan nahi du?

Zazpikoa muga garrantzitsutzat hartzen dugu. Zazpi puntu-ekin euskararen lehenestea ia sistematikoki ematen ari dela ulertzen da, hau da, euskara nabarmentzen dela. Hortik gora euskara gehiago erabiltzen dela erdara baino uler daiteke. Tolosa 7tik gertu geratu da, beraz, nabarmentzetik gertu dago, baina baditu hutsune batzuk. Emaitza horrek zazpiarekiko distantziaren berri ematen

du, eta ondoren egingo diren neurketek esango dute benetan hizkuntza politikak balio duen, aurrera ala atzera egin den puntuazioan, alegia.

Tolosaren neurketan zer baloratu duzue positiboki?

Gauza askotan esan daiteke Tolosa ondo ari dela: ordenantza, plan orokorra edo euskara zerbitzua badu eta aurrekontu egokia euskarari zuzendua; barne funtzionamenduan 15 ataletik 14 euskaraz ari dira, 150 langiletik 125; euskarazko hedabideei eta elkartei diru laguntzak daude; 0-3 urteko hezkuntza euskara hutsen

ematen da; lan mundua euskalduntzeko egitasmoak abian ditu.

Eta non ditu hutsuneak?

Bereziki, hiru hutsune ikusi ditugu: Udalak diruz lagundutako taldeek eta erakundeek errotulazioa euskaraz izan dezaten ez dago erabakita; langile berri gehinenentzat dago derrigortasunezko euskararen ezagutza, baina guztientzat izan beharko litzateke. Udalaren langile baitira; euskalgintzarekiko harremanetan eskalategi ez publikoei ez diete diru laguntzarik eskaintzen; Udalaren zenbait zerbitzuetan

erabakita egonik ere euskarazko zerbitzua eskaini behar dela, hutsuneak daude.

Beraz, zuen ondorioa?

Tolosako Udalak hartu beharreko erabaki asko hartuak ditu, baliabide batzuk ere jarri ditu eta ikusten da emaitza onak daudela. Gertu dago nabarmentze sistematikotik eta uste dut eskura duela. Pozgarria litzateke hurrengo neurketarako Tolosa puntu bat gorago ikustea eta nabarmentze horretan eroso eta ongi izatea.

Azpeitiko hizkuntza politikak, esaterako, erdara diskriminatzen duela esan dute.

Hori epai batek dio, baina ez da egia. Sistematikoki urratzen diren hizkuntza eskubideak euskaldunarenak dira. Erdaldunak beti du erdaraz egiteko aukera eta ez da inongo diskriminaziorik egiten Azpeitiko ordenantza horietan. Kontua da, euskara nabarmentzen hasi orduko jarrera itxiak etortzen zaizkigula gainera.

Euskararen normalizazioan zein pisu du hizkuntza politikak?

Euskararen normalizazioa ez du soilik udalen hizkuntza politika egoki batek ekarriko, baina funtsezkoa da, arauak ezarri behar direlako. Gainerako zutabe guztiak batera egin behar da lan aurrera egiteko.

Hizkuntza politikaren neurketa egiteaz gain, zein da zuen lana?

Une honetan aurkezpen fasean gaude. Gaur azalduko dugu zer eskaintzen duen Kontseiluak eta zer lan egin dezakeen. Esaterako, ordenantza eredu-garriak ditugu, edota Bai Euskarari akordioa herrietan. Informazio iturri handia izan nahi dugu herriak eta esperientzia desberdinak harremanetan jartzeko. Udalaren, herriarren eta erakundeen arteko komunikazioa bultzatuko dugu kezka non dauden identifikatzeko. Bestalde, hutsuneak aurkeztu ondoren, orain herriari dagokio erabakitzea zein lehentasun dagoen, herriak baitu protagonismoa.



Higiezinen Agentzia

Pablo Gorosabel 40
1. solairua • 7. bulegoa
20400 TOLOSA
Tel./faxa: 943 65 55 87
Sakelakoa: 669 368 994

Amasa. 124m²ko bi etxebizitza. Egoera oso onean. Altzari eta guzti.
Anoeta. Harrizko baserrian etxebizitza. Berritzeko, 90m²koa.
Alegia. Eraikuntza berriko pabilioiak. Azken bi modulukoak. 350m²koak.
Belauntza. Pabilioia alokairuan, bulegoak, komunak eta abar.
Berrobi. Laugarren solairuan etxebizitza salgai. Berritua.
Berastegi. 2 solairuko pabilioia alokairuan, 700 m² solairuko.
Legorreta. Baserria salgai, lurrekin. Informazio pertsonala.

Legorreta. Landa lurren 3 hektarea.
Lizartza. Etxe bifamiliar batentzako lurra, abeltzaintzarako ustaketarekin.
Lizartza. 900m²ko bi modulo salgai.
Irura. San Miguel plaza. Atikoa. 76 m² erabilgarri.
Irura. Etxezarreta; 3 logela, komuna, bainugela, altzariekin, garajea eta trasteleku duen etxebizitza.
Irura. Eraikuntza berriko etxebizitza salgai Laskibar inguruan. Garajea eta trastelekuarekin.
Tolosa. San Esteban auzunean,

kanpora begirako 100 m²ko etxebizitza salgai. Berritu beharrekoa.
Tolosa. Ugarran Goenan, baserria berritu beharrekoa. 3 solairuko.
Tolosa. San Frantzisko, 75 m²ko atikoa salgai. Eraberritzeko.
Tolosa. Pablo Gorosabel. 50 m²ko bulegoak alokairuan edo salmentan.
Tolosa. San Frantziskon gela bakarreko etxebizitza. Garajea aukeran.
Tolosa. Agintari kalea. Bi logelako etxebizitza. Egonzela, sukalde eta komunarekin.

Tolosa. 89 m²ko etxebizitza salgai Zabalarretan. Hiru logela, garajea eta trastelekuarekin.
Tolosa. Santa Klaran, 90 m²ko etxebizitza, atzealdean lur sailarekin.
Tolosa. Zumalakarregi kalean 160 m²ko etxebizitza. Egoera oso onean.
Tolosa. Zumalakarregi kalean, lehenengo solairuan 105 m²ko etxebizitza.
Tolosa. Maituna zaharra. Azken 5 garaje ibiak, 30m²tik aurrera. Karga jasogailuekin sartzeko. Martxoan hasiko dira lanak.

NATURA ▶

Nepal, mendizaleen ikuspegitik agertuta

Koldo Aldaz, Goi Mendiko Nazioarteko Gidariak emango du gaur, Amalur jardunaldietako lehendabiziko hitzaldia



Nepal gailur ikusgarri eta era beren, erakargarriez beteta dagoen herrialdea da. HITZA

KOLDO ALDAZ ▶ GOI MENDIKO NAZIOARTEKO GIDARIA

«Askotan pentsatu izan dut zor handia dudala herrialde horrekin»

1985en lagun talde batekin egin zuen Koldo Aldazek (1956, Iruñea) bere lehendabiziko espedizioa Nepalera. Orduan afizioz joan bazen ere, beste hainbatetan ere joan da, bere lanbide ere bilakatu baita mendian ibiltzea. Egun, Goi mendiko Nazioarteko Gidaria da.

Horrenbeste aldiz Nepalera joan eta gero, lehendabiziko ilusio hori galdu al da?

Ez da ilusioa galtzea, baizik eta, orain nire lanbide bilakatu dela. Orduan, zaletasun bat zena orain nire ogibide da. Beste modu batera begiratzen diot. Bestalde, oporretara joan nahi dudanean, beste toki batzuk aukeratzen ditut.

Zer da zuretzat mendia?

Orain lana, baina hori ez da garrantzitsua. Garrantzikoena da niretzat mundu erakargarri bilakatu zenekoa. Orduan, mendira joatean beste mundu batean sartzen ginen, aurreiri-

tzi gabekoan. Gainera ikaragarriko poztasuna ematen zizun gailurretara igotzeak.

Zer da mendiak eman dizuna?

Gauza asko, zerrenda luzeegia izango litzateke. Baina garrantzitsuenak lana, bizitzeko modua. Bestetik, hainbat poztasun. Askotan pentsatu izan dut zor handia dudala herrialde horrekin, hau da, Nepalekin.

Lana emateaz gain, some bat ere eman dizu?

Bai, neskalagunarekin Himalaiara egin nuen bidaia batean, oporraldi batean, mutiko bat ezagutu genuen. Eta handik denboraldi batera, zenbait gertakari medio, gurekin bizitzera ekarri genuen.

Bizimodu hau aukeratzeagatik, zerbaiz utzi al duzu bidean?

Ahal dudan gutxiena saiatu naiz uzten. Inork ez daki zerbaiz uztean, zer lortuko lukeen hori aukeratu izan balu. Mo-



HITZA

mentu batzuetan aukeratu egin beharra dago. Adibidez, semeak jaio behar zuen garaiean Everesteko espedizio bat egitekoan nintzen, baina hau alde batera uztea erabaki nuen, niretzat garrantzitsua goga baitzen semearen jaiotza.

TOLOSALDEKO HITZA.INFO

Zeuk idatzi. Izan zaitze ere kazetari eta eman zure inguruko albiste berri gure webgunean. Informazioarekin batera, komenigarria da norberaren datuak idaztea, gero kontaktuak jarri ahal izateko.

ESTI EZEIZA

Joan den ostiraleko sarrera ekitaldiaren ondoren, gaur hasiko dira Amalur jardunaldiak. Lehendabiziko saio honetan Koldo Aldaz izango da Zerkausian 20:00etatik aurrera, *Nepal maite* izeneko hitzaldia emateko. Aldaz, Goi Mendiko Nazioarteko Gidaria da, eta mundu osoan barrena gidatu izan ditu taldeak trekkingak eta igoerak eginez.

Jardunaldietako bigarren saioa bihar izango da, gaurkoaren toki eta ordu berdinean. Vicki Sherpa kataluniarra izango da hizlari, Koruko Aizarnak lagunduta. Kataluniar hau bizitza osoa lanean aritu da, Nepaleko haurren, ezinduen eta emakumeen berdintasunaren alde.

Amalurreko azken saioa Juantxo Agirrek zuzenduko du, eta Agustin Paniker izango da hizlari. Hau etzi izango da, aurrekoak bezala Zerkausian, eta 20:00etan. Kairos argialetzeko zuzendaria da Peniker, eta ekialdeko pentsamentzeko modua, filosofia, zientzia... zabaltzen egiten du lan.

Hitzaldiez gain, Juan Ramon Llavoriren *Las miradas de la tierra* argazki erakusketa ikusgai da Aranburu Jauregian.

Urteotan zehar, gero eta mendizale gehiago joaten da Nepal eta inguruetara, horrek ondorioak izango zituen. Bai, asko nabaritzen da. Esaterako, Katmandura joan nintzen lehendabiziko aldian, kaleetan ikaragarriko bizia zegoen. Musika entzun zitekeen kaleetan eta oso polita zen han bizi zena. Orain berriz, hori ez dago, kaleetan ez dago horrelako giroa.

Beraz, mendizaleen zabalteak kalterako izan da herrialde hauentzat?

Herrialdearen perkapita errenta baxua da, eta honek eskaini dezakeena hori da. Horrela behintzat lana dute. Kontraesan bat dago hor baina oreka bilatu beharra dago. ◀

ERREMONTEA ▶

Frontoi motz eta luzeko partidak etzi, Beotibarren

ERREDAKZIOA

Ostiral honetan, hilak 23, arratsaldeko 19:00etan, Beotibar pilotalekuan Frontoi luze eta motzeko torneorako baliagarriak diren erremonteko bi partida jokatu dira.

Lehenengo partidari: Zalkain eta Aizpurua II. Tolosarrak ariko dira jokoan, Etxeberria IV eta Urko azpeitiarren aurka. Bigarren saioan berriz, torneoko final-laurdena jokatu dute: Zeberio II eta Agirrezabalak, Altuna II eta San Miguelen aurka.

Sarrerak zortzi euro balioko ditu eta 25 urte azpikoentzat berriz, dohainik izango dira. Ikuskizun polita espero da beraz etzi, Beotibar pilotalekuan. Frontoi hau erremontean jokatzeko oso egokia da, eta partidak ere maila onenekoak izango dira.

Aurreko astean Galarretan txapelketako lehen partidak jokatu ziren. Han, Altuna II eta San Miguelek 40 eta 36 irabazi zuten kanporaketako lehen partidari. Hori dela eta, Altuna II eta San Miguelek 37 tanto egin beharra daukate etzi, gutxienez final-laurdenetara iristeko. Zeberio eta Agirrezabalak berriz, saikatu ahal izateko, irabazteaz gain, 36 tanto baino gutxiagotan utzi beharko dituzte Altuna II eta San Miguel.

Besteetatik desberdina

Binakako Erremonte Txapelketa berezia da Euskal Jai enpresak antolatutako duen hau. Zortzi bikotek hartu dute parte, eta bi partidatara jokatzeko dira kanporaketa guztiak, finala bera barne. Berritasun nagusia da bi partida horiek ez direla pilotaleku berean jokatu, eta ez direla biak frontoi luzean jokatu: bat luzean eta bestea berriz, motzean.

iragarki laburrak ▶

LANA	bi ume zaintzeko pertsona bat behar da. Telefona: 630 98 43 00.
Sukaldaria. Villabonan sukaldaria behar da. 943 69 19 33.	
Gidaria. Erakunde publikoetarako gidariak behar dira. Telefono zenbakia: 943 44 48 66.	
Harreragileak. Udaletxeetarako harreragileak behar dira.	
Interesatuak deitu 943 44 48 66ra.	
Zaintzailea. Tolosan arratsaldeetan	
ESKUALDATZEA	
Loradenda. Erretiroagatik, loradenda eskualdatzen dut material eta guzti, Lasarten. Kokapen ezin hobea. Baldintza interesgarriak. Interesatuak deitu 626 10 56 89 telefono zenbakira.	

ANOETA ▶

Nagusilan egitasmoa aurkeztuko dute

Nagusilan, jubilatutako boluntarioak biltzen dituen egitasmoa, aurkeztuko dute bihar, 18:30ean, Alkartasuna biltokian. Euskaraz eta gazteleraz egingo dute aurkezpena. Bestalde, gaur Naiara Ortega podologoak kontsulta eman-gu du biltokian 14:45etik aurrera. Horrez gain, Alkartasunatik adierazi dute oraindik leku batzuk badaudela bete gabe Bilbora hilaren 28an egingo den bidaiara joateko. Izen-ematea biltokian.

ASTEASU ▶

'18/98 auzia' ren inguruko mahai-ingurua

18/98 auziari buruzko mahai-ingurua antolatu dute etzira-ko Asteasun. Eskualdeko inputatuek —Joxe Mari Olarra, Mikel Egibar eta Nekane Txapartegi—, Aitor Ibero abokatuak eta Teresa Toda inputatuak eta 18/98+ lantaldeko kideek hartuko dute parte. Kultur Etxe zaharrean egingo dute, 19:30ean. Ondoren afaria antolatu dute Aiztondo elkartearen. Afaltzera joan nahi duenak 615 708732 zenbakira dei dezake.

VILLABONA ▶

Bozkaterakoan EHNA erabiltzeko deia

Bozkaterako eskuratu EHNA! Ielopen Villabonako Bai Euskal Herriari ekimenak hilaren 24rako, larunbata, tramitazio eguna antolatu du. «Maiatzaren 27ko hauteskundeetan ahalik eta herriar gehienek euskaldun bezela eta EHNArekin bozkatzeko aukera izan dezaten» antolatu dute. Kultur Etxean egin ahal izango da EHNA 12:00etatik 14:00etara.

VILLABONA ▶ MENDIZALETASUNA

39. Ibiladia antolatu du Aizkardi elkarteak igande honetarako

Mendizaleek bi aukera izango dituzte: 43 kilometroko ibilbide luzea eta 23,5 kilometroko ibilbide motza



Bi ibilbideak: motza puntuekin zehaztuta eta luzea marra lodiz. HITZA

(1.075 m.), Gazume (1.003 m.), Altuzelai (427 m.), Aia (320 m.), Peusgarate (420 m.), Zizurkil (58 m.) eta Villabona.

Ibilaldi luzeak 950 metroko malda gehitua du, bost ordu eta erdi inguruko iraupena eta parte-hartzaileak 08:00etan abiatuko dira. Igaroko dituzten zenbait leku: Villabona, Anoeta, Mendikute, Lizarbakarra (835 m), Atxutegi (680 m.) Alkiza (345 m.) eta Villabona.

Izen-ematea www.aizkardi.galeon.com helbidean, 649 717 182 zenbakian (19:00etatik 22:00etara, astegunetan) edo ibilaldiaren eguneari bertan egin daiteke. Gogoratu dutxa zerbitzua izango dela ibilaldiak bukatzerakoan eta 17:30ak aldera mendirako produktuen zozketa egingo dutela parte-hartzaileen artean. Bestalde, kontuan izan behar da larunbatetik igandera ordu aldaketa dagoela. Arazoak ekiditze-ko, parte-hartzaileek, Villabonara iristerakoan, autoak aparkatzekoan argibideak ematen ariko direnei kasu egiteko eskaria egiten dute antolatzailerak.

ERREDAKZIOA

Aizkardi Mendizale Elkarteak bere 39. Ibiladia antolatu du igande honetarako, hilak 25. Iaz bezala, aurretik ere bi ibilbide izango dituzte mendizaleek aukeran: 43 kilometroko ibilbide luzea eta 23,5 kilometroko ibilbide motza. Biak Villabonan hasi eta bukatuko dira.

Ibilaldi luzea Euskal Herriko Iraupen Luzeko Ibilaldien 6. Zirkuitorako baliagarria da. Parte-hartzaileak 06:30ean abiatuko dira eta 2.150 metroko malda gehitua izango dute. Iraupena 10 ordu ingurukoa izango da. Ondoko lekuak igaroko ditu, besteak beste: Villabona (61 metro), Anoeta (69 m.), Mendikute (804 m.), Ernio

MADDI BENGOTXEA ▶ AIZKARDI M.E.-KO KIDEA

«Iazko 700 parte-hartzaileetara iritsiko gara seguruenik»

I. Garcia ▶ Herenegun gauean egin genion elkarrizketa Maddi Bengoetxea (Villabona, 1959) Aizkardiako kideari, izena emateko telefonoari adi zegoen bitartean.

Nola doaz izen-emateak?

Erritmo nahiko onean doaz. Izena ematen ari diren gehienak martxa luzerako egiten ari dira. Martxa motzerako, normalean, herriko edo inguruko jendeak ematen du izena. Eta hauek, azkeneko momentuan egingo dute.

Iaz 700 lagunek hartu zuten parte. Kopuru horretara iristeko moduan?

Ikusita zer erritmo ematen ari garen, antzeko kopurura iritsi-

ko gara seguruenik. Azken aste honetan animatzen da jende gehien.

Eguraldi txarra izaten ari gara egunotan. Horrek eragintza izango du ibilbidean?

Elur asko botatzen badu, Erniozabal eta Ernio gaizki egongo dira ibiltzeko. Halere, azken momentuan erabakiko dugu aldaketarik egin edo ez. Momentuz, antolatuta dagoen bezala egingo dira ibilbideak. Gainera, asteburu guztiak beteta daude beste martxa luzeekin eta beraz ezin da atzeratu.

Zer material komeni da erabiltzea?

Hori mendizale bakoitzak ikusi beharko du. Batzuk korrikari

egiten dute martxa eta horiek zapatilak erabili ohi dituzte. Bakoitzaren asmoen arabera izaten da. Bestalde, ibilbidea askotan errepide ondotik igarotzen da eta, beraz, jendeak aukera dezente ditu martxa uzteko. Material ona erabiltzeko aholkua egiten dugu.

Jende ugari aritzen zarete antolakuntzan.

Bai, hala da. Herriko hiru elkarte laguntza eskaintzen digute. Jende ugari aritzen da lanean. Horietako batzuk gero parte hartzen dute martxan eta beste batzuk ez. Herriko komertzioek ere laguntzen digute bukaerako zozketako materiala ematen. ◀

TXOTX

Arratzain

Arratzain zahar baserria info@agroturismoarratzain.com
Tel.: 943 366 663 Usurbil

Oialume Zar

Mikel Arozamena bidea, 16 (autobus geltokitik gertu)
Tel.: 943 552 938 - 943 332 127 Astigarraga

Gartziategi

Gartziategi baserria
Tel.: 943 469 674 Astigarraga

Iparragirre

Osiñaga auzoa
Tel.: 943 550 328 Hernani

Urbitate

Ergoiena auzoa
Tel.: 943 180 119 Ataun

Gurutxeta

Oialume bidea, 63 (sarrera Ergobia auzotik)
Tel.: 943 552 242 Astigarraga

Akelenea

Oialume bidea 57
Tel.: 943 333 333 Astigarraga

Lizeaga

Gartziategi baserria, Martutene pas. 139
Tel.: 943 468 290 Astigarraga

Elutxeta

Oztaran auzoa 34, Elutxeta baserria
Tel.: 943 556 981 - 943 333 337 Urnieta

Rezola

Santio Zeharra
Tel.: 943 552 720 - 608 143 332 Astigarraga

Larre Gain

Larre-Gain baserria, Ereñozu auzoa
Tel.: 943 555 846 - 616 287 867 Hernani

ALEGIA ▶ KULTURA

Baserriak, kostaldea eta loreak kolorez

Isabel Azpirozen oleozko lanak
Jubilatuena tabernan daude ikusgai

NEREA URBIZU

Isabel Azpirozen margolanek eskualdeko eta Donostialdeko ikuspegiak irudikatzen dituzte. Alegiko jubilatuen tabernan apirilaren 16ra bitarte izango dira margotzen duela urte gutxi hasi den margolariaren lan batzuk ikusgai. Aste Santua ere barne.

Eskualdeko margolaria den Isabel Azpiroz jubilatuta dago, eta duela urte gutxi hasi zen margotzen, afizioz. Kasu honetan, tabernan ikusgai nahiz salgai 15 margolan jarri ditu, denak 2006. urtean egindakoak. Horien artean daude *Asteasu*, *Zakurrak*, *Kontxa*, *Haizearen Orrazia*, *Xabe*, edota *Loreak*... urtean margotuta. Denak oleo teknika erabilita eginda daude, eta askok, Impresionismo garaiko margolanei gogorarazten digute, pintzelean margo kantitate asko hartuta, eta batzuei ere erliebe pixka bat nabaritzen zaie.

Erakusketa honetan erretraturik ez da ikusiko, ehizerako bi zakurrak kenduta. Animalia hauen kalparraren dizdira era bitxian lortu ditu Isabel Azpirozek, batez ere zakur beltzari dagokionez. Gainera, lurra gorria izanik, kontraste handia eta deigarria lortu du; gutxitan ikusten da margolanetan kolore gorria, horren indar handiarekin eta horrenbeste leku hartzen. Euskal etxe tradizional baten barruan daude bi zakurrak, egurrezko biga zaharrak ere irudikatuta. Erakusketan dagoen margolanetan deigarrienetakoa da

Falta ezin direnak

Landare batzuk ere margoturik daude, eta bereziki baten-gana jotzen dute gure begiek: hauek ere biziak dira, gorri antzekoak, eta oso alaia.

ERAKUSKETA ▶

Lekua. Alegiko jubilatuen tabernan.

Bisita egunak. Asteartetik igandera bitarte.

Noiz arte. Apirilaren 16ra arte.

Lana. 15 margolan, denak oleoz eginak.

Margolaria. Isabel Azpiroz.

Tamaina. 40x50 batz best.

Paisaia ezagunak ere ikus daitezke bestela, Alegiko jubilatuenetan: Asteasu, Zizurkil irudikatu ditu gehienbat, baina margolari gehienek ere irudikatzen dutena ez da falta: Donostialdeko ikuspegiak daude. Eduardo Txillidak bere garaian egindako Haizearen Orrazia eskultura margotuta ere ikus daiteke, atzealdean Kantauri itsasoaren izaera gogor baina ederra ere agerian dela. Zeruan erabilitako kolore hotzek (morea, urdin iluna) ere itsasoaren indarrari lagundu egiten dio, Euskal Herriko eguraldi eta klimak askotan eskaintzen dituen egun horietako bat koloreekin irudikatuz.

Kontxako ikuspegiak ere landu du zizurkildarrak, baina bada hain arrunta ez den ikuspegi batetik egindakoa: espaloizati handi bat ageri da, atzean udaletxea dagoela, eta ezkerrean, noski, hondartzaren zatitxo bat. Nolabait esatearren, espaloia edo kalea bera da protagonista, eta ez ibilbidea edo hondartza.

Naturako paisaien artean eta landare eta loreen artean ere, bodegoi bat ere badago, besteekin zerikusirik ez duena, hain zuzen ere. Iluna da orokorrean, eta erakusketari seriotasuna ematen dio margolan honek, batez ere koloreengatik.



Zerua. Argazki bateko zeru zatia dirudi, oso era naturalean dagoelako; koloreen aldetik eta baita egituraren aldetik ere. ISABEL AZPIROZ



Edozein paisaia egokia. Ez da beti Kontxa bezalako parajerik behar: honako margolanak zuhaitz enborrak aurrean jarri, baserria bigarren planoan uzten du, eta edertasuna aurreko ataletan arakusten du. ISABEL AZPIROZ



Zakurrak. Ehizeko zakurrak daude, baserrian sartzen. Zoruko kolore gorri biziak kontraste deigarria sortzen du. Ez da arruntena erakusketetan erretratoak ikustea: hau da honetan dagoen bakarra. ISABEL AZPIROZ

Ana Ume, gizonezko eta emakumezkoen **arropa**
Gaur 19:00etan luncha
San Juan kalea, 61 • Alegia • 943 65 37 94

15. aek
korrika badator!
MARTXOAREN 22tik APIRILAREN 1era

KARRANTZA IRUÑEA 2007
heldu
ELKARLANARI
LEKUKOARI
HITZARI
EUSKARARI
HERRIARI

aek

AGENDA 21 ▶

San Lorenzo Udaltalde 21, lehen fasearen amaieran

Herriko hainbat erakunderekin elkartu ondoren diagnostiko bat aurkeztuko dute

A. IMAZ

San Lorenzo Udaltalde 21 bost udalerrik osatzen dute: Ibarra, Berastegi, Berrobi, Belauntza eta Elduaiek. Ainhoa Alonso Udaltaldearen koordinatzailea da eta jakinarazi duenez, «Tokiko Agenda 21 prozesua, pixkanaka aurrera doa». Lehenik logotipo lehiaketa antolatu zuten, eta ondoren, herrietako erakunde ezberdinekin harre-

manetan jarri ziren, udal barneko zein kanpokoekin, helburu jakin baten inguruan: «etorkizunera begira herri bateko bizi kalitatea hobetzea denen parte hartzearekin».

Lehen fasea, diagnostiko baten zirriborroa egitea da. Une honetan, «puntu honen azken zatian» aurkitzen dira eta martxoaren amaieran zirriborroa eskuan izango dutenaren «esperantzarekin». Ondoren biga-

rren fasea etorriko da, Ainhoa Alonsok ekaina edo uztaileako aurrekusten duen Herri Batzarrarena, hain zuzen ere. Hemen, lehen fasean bildutako informazioa aztertu eta eztabaidatu egingo dute, herri guztiari zabalik egongo den biltzarrean, izan ere, «herritarren ekarpenak eta iritziak Agenda 21en oinarria» dira Ainhoa Alonso koordinatzailearen iriziz.



Logotipo lehiaketan lehena.HITZA

IBARRA ▶

KZguneak mintegiak aurkeztu ditu

Apirila, maiatza eta ekaineko Ibarra KZguneak mintegi ugari antolatu ditu informatika munduan oinarritzeko gauzak ikasi eta erabiltzeko. Lehen mintegia apirilak 13an egingo dute eta 16:00etatik 20:00etara burutuko da. Gaia berriz, *As-teburu bat Euskal Herrian* izango da eta izena emateko 943 65 37 20 zenbakira deitu beharko da edota tutor.tolosa@kzgunea.net helbidera idatzi.

ASTEASU ▶

Errausketaren aurkako hitzaldia, gaur 19:00etan

Onddolar errausketaren aurkako Villabonako plataformak hitzaldia antolatu du gaur arratsaldeko 19:00etarako. Asteasuko Kultur Etxean, Mikel Izagirre, Gipuzkoako Errausketaren Aurkako Koordinatzaileak kidea errausketa plantak eskualdean sortuko dituen eraginen inguruan mintzatuko da.

IBARRA ▶

Ostiralera argazkiak Gaztetxean

Gaztetxetik pasatako belu-naldi guztien argazkiak bildu eta erakusketara egin nahi dute Gazte Asanbladakoek. Ostiral honetarako, garai ezberdinetako argazkiak bildu nahi dira hurrengo astean egingo den erakusketan jartzeko. Hilaren 26tik 31ra egongo dira ikusgai eta azken egunak *Piparmin Eguna* rekin egingo du bat. Gazte Asanblatik, herriko gazte guztiei parte hartzeko deia zabaldu nahi zaie.

IBARRA ▶ GIZARTEA

Aia, Meagas eta Lastur igaroko dituzte Langostino Moto elkarteak antolaturiko bigarren Moto Biran

Igande honetan izango da, eta 5 euro ordaindu beharko dituzte parte hartu nahi dutenek

A. IMAZ

Langostino Moto Kultur elkarteak antolatuta, igande honetan bigarren Moto Bira burutuko dute. Irteera eta amaiera, Ibarra San Bartolome plazan izango dira eta 5 euro ordaindu beharko dira alde zurretik «gosarian zenbat izango garen jakiteko». Ibilbideari dagokionez, Aia, Meagas eta Lastur igaroko dituzte besteak beste, azken honetan hamaiketako egingo dute gainera. Antolatzailerik parte hartzeko deialdi zabalago egin dute, «giro alaia eta adiskidetasuna nagusi dira era guztietako motor eta lagun artean. Giro hau ezagutu eta parte hartzeko deialdi zabalago egingen dugu, parte hartzeko gurekin kontaktuan jartzeko nahikoa da».



Ibarra Langostino Moto Kultur elkarteak eginiko Moto Bira bateko irudia.HITZA

hilberria ▶

M^a Pilar Jauregi Irastorza

Herenegun hil zen, 84 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

— Goian bego —

Arima zuzendaria: Jesus Salegi; senarra: Juan Mujika; seme-alabak: Arantxa eta Iosu Garcia, Juan eta Gurutze Arrieta; bilobak: Joanes, Maddalen eta Xabier; ahizpa: Kontxi; zaintzailea: Dora; ezkon anai-arrebak, ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideak.

Haren animaren alde otoitz bat eskatzen dizuzte eta arren etor zaitezela GAUR, ASTEAZKENA, arratsaldeko ZAZPIETAN, ANDRES DEUNAREN parroki elizan, gorpua bertan dela egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

Helbidea ▶ Iraegi baseria.

Oharra ▶ Gorpua Beasaingo Golerri beilatokian egongo da.

ORMAIZTEGIN, 2007ko martxoaren 21ean



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

BERNARDO ATXAGA ▶ IDAZLEA ETA EUSKALTZAIN OSOA



NEREA URBIZU

«Metropoliak indarra duen heinean, gure lurraldeak hizkuntzari esker du zentraltasuna»

Bernardo Atxaga idazlea euskaltzain oso izendatu zuten Asteasun joan den larunbatean; Juan Mari Lekuonaren domina jaso zuen

NAIARA GARZIA

Bernardo Atxaga (Asteasu, 1951), Euskal Herriko idazlerik unibertsalena, euskaltzain oso izendatu zuten larunbatean Asteasuko pilotalekuan egindako ekitaldi batean. Bertan, Juan Mari Lekuonak erabilitako domina hartu zuen.

Bernardo Atxaga zer emango dio Euskaltzaindiari?

Ez dut uste asko eman diozaio-kedanik. Alde batera ni ez naiz filologoa, ez naiz linguista. Niretzako hizkuntza izan da tresna bat eta beharbada nik eman dezakedana da praktikaren berri. Esan dezaket: zuek hitz hau eta hau erabaki duzue baina gero eguneroko bizitzan ezin da erabili. Bistakoa da hitz batzuk eta jokamolde batzuk hizkuntzan ez direla batere praktikoak. Oso ondo daude aurkezpen egunean esateko. Badago poesiari buruz hitz egiten denean pasarte bat: behin pertsona batek mina bat atzer-

tu behar zuen eta zeukan aitzur bat polita eta beste bat oso itsusia, baina askoz eraginkorragoa eta zorrotza zen itsusia. Askotan aitzur itsusiarekin egin behar da lan.

Hizkuntza bat mantentzearen eta malgutasunaren arteko oreka nola ikusten duzu?

Larunbateko hitzaldian esan nuen bezala, aurreneko legea hitzak lanera ateratzea da eta lan hori ahalik eta hobereenen egin behar dute. Lan egiteko langile onak izan behar dituzte, esanahia eraman behar dute, garraiatu behar dute ahalik eta zentzu gehiena. Eta askotan purismoak dituen joeren aurka egin behar dute lan.

Kulturatik heldu diren hitzak onartzeko ikaragarriko erresistentzia dagoela esan duzu. Zerk eragiten du joera hori?

Ideologiak. Jende askorentzat hizkuntzak duen helburua Santanderko edo Burgoskoek ulertzen ez dituzten hitzak erabiltzea da. Hizkuntzaren helbu-

ru hori, besteangandik modu horretan bereiztea, bere horretan, ergelkeria bat da. Odisea hitzak, adibidez, bere ibilera historikoa du eta ezin da beste hitz baten bitartez esan.

Euskal Herrian joera sektarioak oso nabarmenak izan direla aipatu duzu.

Sektarismoa leku guztietan dago, eta esango nuke erlijioak indar handia duen lekutan. Indar handiagoa duela. 1960. urtea baino lehen erlijioak dena esplikatzen zuten. Handik 10 urtetara, komunismoak. Euskal Herrian sektarismo gradu handia egon da eta hori ikasi behar dugun lezio bat da.

Euskalduna izateak, edo gudibenen hizkuntza bat hitz egiteak hizkuntza horri buruzko betiereko hausnarketa al dakar?

Euskal Herriaren ezaugarri bat hizkuntzaren inguruan bizi den herrialdea izatea da. Hizkuntza bera da gure gaietako bat. Hori ez da beste leku ba-

tzetan gertatzen. Nik ez dut uste hori txarra denik. Azken batean gure bizimodua da. Pentsatzea txarra dela, eta aieneka hasteak ez du zentzurik. **Euskara hizkuntza literario bezala nola deskribituko zenuke?**

Hizkuntzek garrantzi soziala dute, ekonomikoa, afektiboa... Gero, idazteko orduan, gauza asko sartzen dira barruan. Idazketa hari asko dituen ekin-tza da. Gure aurrekoak aise ibili eta moldatu dira. Honek ez du esan nahi ume batek ura edaten duen bezain erraz euskara idatzeko dugunik, baina idaztea inoiz ez da erraza.

Euskara ez den beste hizkuntza batean idaztea aterako al litzazuke?

Aterako litzazuke. Arruek bere liburuan latina eta gaztelania ere erabili zituen. Honek zer esan nahi du? Beste hizkuntzetan idatzi ahal duzula. Kasu honetan gai berak ez dituzu hartuko aintzat. Erdaraz idatziko

SEKTARISMOA

«Euskal Herrian sektarismo gradu handia egon da eta hori ikasi behar dugun lezio bat da»

EUSKARA

«Euskal Herriaren ezaugarri bat hizkuntzaren inguruan bizi den herrialdea izatea da»

banu beste literatura bat egingo nuke.

Literatura kanonikoan, gutxienez hizkuntzentzat lekukirik ba al dago?

Gutxienez hizkuntzak lagundu egiten du gizarte baten zentraltasuna. Metropoliak indarra duen heinean, gure lurraldeak hizkuntzari esker du zentraltasuna. Hori oso garrantzitsua da. Bestela beste kultura horien errepikapena zara, klonikoa...

Euskaltzaindiaren zer irudi dauka jendeak?

Wazemank-eko parodiarena edo bestela sekretua baitz bezala ikusten du. Lan handia dago hor Euskaltzaindia gizarteratzeko. Zer edo zer egiteko-tan hor lagundu nezake. Gainera, herrialde guztiek akademia bat ez izan arren, gure kasua ezberdina da, gure hizkuntza delako gutxiengo baten hizkuntza, krisian dagoena, eta honek garrantzi berezi bat ematen dio Euskaltzaindiari.

Euskaltzain oso diren 25 ki-deetatik 2 besterik ez dira emakumeak. Berdintasuna oraindik ez al da Euskaltzaindiara iritsi?

Gaurko gizartera arte ez da berdintasunik egon, baina datozten urteetan emakume gehiagok etorri behar dute Euskaltzaindiara.

Zerk egin zintuen idazle?

Etzeko giroak, aurrena, liburu-zaleak baitziren. Ez dut esango liburu asko zeudenik, baina gauza garrantzizkoa zen. Gero Andoainen hiruzpalau urte pasa nituen eta hango liburutegian etxean hasitako bidea jarraitu nuen. Irakurle nintzelako bihurtu nintzen gero idazle. Honetaz gain, Gabriel Arestirekin topaera erabakiorra izan zen, nire aurrenekoariko lana irakurri eta idazten jarraitzeko animatu egin ninduen 1972. urtean bidali zidan gutun batean. Niretzako fundazioko akta izan da gutun hori. «Euskal eskritoreak —berak zioen bezala— hau eta hau dira, eta zu seigarrena izango zara», esan zidan.

AGENDA ▶
DEIALDIAK

Tolosa. Txobxongiloaren Nazioarteko Eguneko ekitaldiak izango dira egun osoan zehar.
Tolosa. Koldo Aldaz Goi Mendiko Nazioarteko gidariak Nepali buruzko *Nepal maite* hitzaldia emango du Zerkausion 20:00etatik aurrera, II. Amalur natur, bidaia eta antropologia jardunaldien barruan.
Tolosa. Udaberri Dantzari Taldeak hilaren 31n antolatu duen erromeria afarirako txartelak salgai daude Kimetz, Zumbeltz eta Garikano dendetan 20 eurotan (haurrek 15).

ERAKUSKETAK

Alegia. Isabel Azpirotzek egindako margolanak daude Alegiko jubilatuen tabernan ikusgai. Apirilaren 16ra arte, asteartetik igandera bitarte.
Leitza. Naturaren txikizioa argazkietan Pako Zufiurren *Naturak jasaten duen txikizioaren inguruko alegoria bat* Torrean.
Tolosa. Alberto Letamendiren *Migraciones: sonidos desiertos* pintura erakusketa Aranburu Jauregian, Udal Kultur Batzordeak antolatuta.
Tolosa. Ander Gillenearen *Sahararak. Herri bat erbestearen argazki* erakusketa Aranburu Jauregian.
Tolosa. Lanbroa tabernan ikusgai dira hilabete honen amaierara arte, Pilarxo Elosegia tolosarraren oleo, paisaia eta bodegoiak.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Leitza. Erbiti, O. Lizarraga, 7. 112.
Tolosa. Olarreaga, M. Martin Jose Iraola, 10. 943 672438.

IRRATIA

Txolarre irratia (107.5, 101.2 FM)
11:00-14:00. *Tolosaldeko ahotsa* magazina: eguraldia Joxe Landarekin, HITZAren errepasoa, elkarrizketak, agenda, lehiaketa, disko eskainiak...
18:00-20:00. *Tolosaldeko ahotsa* (errepikapena).
20:00-21:00. *Irauli uhinak*.
21:00-23:00. *Bide okerretik*.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Gurasoekin jolasean euskaraz

VILLABONA ▶ 'Euskaraz Mintza' egitasmoaren baitan, Fleming eskolako gurasoak haurrentzako jolasak euskaraz egiten ikasten aritu dira



Ikastaroan zehar jolasak ikasten aritu dira gurasoak, tartean seme-alaben laguntzarekin. HITZA

IMANOL GARCIA

Lehenengo irakasleentzako txanda izan zen. Oraingoan gurasoena izan da. *Euskaraz Mintza* proiektuaren baitan, ikastaroak jaso dituzte Fleming eskolako irakasle zein gurasoek. Haurrei zuzenduriko jolasak euskaraz egiteko eta, beraz, eskolatik kanpo egiten dituzten orduetan euskaraz aritzeko egitasmoa da *Euskaraz Mintza*. Haurrekin aritzeaz gain, irakasleak zein gurasoak trebatzea du helburuetako bat proiektu horrek. Bada, Fleming

eskolan atzo bukatu zuten gurasoei zuzendutako ikastaroa Arroako eraikinean. Guztira bederatzita orduko ikastaroa izan da, Idurre Lucasen gidaritzapean. Batez ere jolas tailerrak landu dituzte, sei eta hamabi urte bitarteko haurrei zuzendutakoak. «Hala ere, jolas horiek moldatu daitezke haur txikiagoekin jolasteko», dio Lucasek. Dozena bat gurasok hartu dute parte ikastaroan. Horieta-ko bat Izaskun Arruabarrena izan da. Fleming eskolako jangelan lan egiten du eta parte

hartu izan du jolasen inguruko beste ikastaro batean. «Beti zerbait ikasten da», dio Arruabarrenak. «Jolasak berri-egiten dira eta ondo dator horiek ezagutzea gero haurrekin jolasteko». Bere ustez, gurasoek orokorrean gutxi jolastan dute seme-alabekin eta gehiago jolastu beharko luketeela deritza. Mari Carmen Irazusta da parte hartu duen beste gurasoetako bat. Euskaraz ulertzen badu ere, zailagoa zaio hitz egitea. «Haurren jolasak gaztele-raz bakarrik nekizkien. Be-

raiek, berriz, dena euskaraz ikasten ari dira eta beraiekin jolasteko ikasi beharra nuen». Lehen Hezkuntzako haurrak eguerdian aritzen dira *Euskaraz Mintza* egitasmoaren baitan jolasean. Haur Hezkuntzan jolasek leku garrantzitsua dute eskolaren baitan, horregatik ez da ezer berezirik prestatu beraiantzat. Hala ere, ikasturte amaiera bitartean gurasoak ikasten aritu diren jolasak egingo dituzte. Horrela, ikasge-
latik kanpo ere, gurasoekin jolas horiek egiteko.

AGURRAK ▶

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- ▶ HITZAren egoitza Tolosan Araba etorbidea, 5 behea
- ▶ HITZAren egoitza Leitza Udaletxeko bulegoa